

ERANDIO ELIZATEKO UDALA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE

LEHENENGO ARIKETA A EREDUA

1 LEHENDAKARIAREN ETA GOBERNUKO BESTE KIDEEEN ERANTZUKIZUN KRIMINALA

- 1a) Lehendakariari eta Gobernuko beste kideei erantzukizun kriminala galdatu ahal izango zaie, hala dagokienean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osokoan.
- 1b) Lehendakariari eta Gobernuko beste kideei erantzukizun kriminala galdatu ahal izango zaie, hala dagokienean, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Aretoan.
- 1c) Lehendakariari eta Gobernuko beste kideei erantzukizun kriminala galdatu ahal izango zaie, hala dagokienean, Auzitegi Nazionalean.
- 1d) Lehendakariari eta Gobernuko beste kideei erantzukizun kriminala galdatu ahal izango zaie, hala dagokienean, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan.

2 DIPUTATUEN KONGRESUA

- 2a) Huteskunde-barrutia autonomia-erkidegokoa da.
- 2b) Kongresuak, gutxienez, 300 diputatu eta, gehienez, 400 izango ditu; diputatuok hautatzeko, sufragio orokor, aske, berdin, zuzeneko eta sekretua erabiliko da.
- 2c) Kongresua lurraldeak ordezkatzeko ganbera da.
- 2d) Ceuta eta Melillaren kasuan, bakoitzak bi diputatu izango ditu.

3 PROBINTZIA

- 3a) Probintzia toki-administrazioiko erakunde bat da, berezko nortasun juridikorik gabekoa.
- 3b) Ezin izango da probintzia ez den beste udalerrri-elkarterik eratu.
- 3c) Probintzien mugak aldatzeko, aldaketa txikiena egiteko ere, aurretik Gorte Nagusiek baimena eman behar dute, lege organiko baten bidez.
- 3d) Uhartedietan, uharteek ez dute izango berezko administrazioirik.

4 TOKI-ADMINISTRAZIOA

- 4a) Konstituzioak udalerrien autonomia bermatzen du.
- 4b) Probintziaz bestelako udalerrri-elkarteak sor daitezke.
- 4c) a) erantzuna zuzena da, baina b) okerra.
- 4d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

5 EUSKO JAURLARITZA

- 5a) Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-egitekoak, bai eta legegintzako ahala ere, dituen kide anitzeko organoa da.
- 5b) Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-egitekoak dituen kide anitzeko organoa da.
- 5c) Eusko Jaurlaritzak legegintza-ahala gauzatzen du.
- 5d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

6 TOKI-ARAUDEA ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN

- 6a) Udalerriak toki-erakundeak dira, baina ez daukate berezko nortasun juridikorik.
- 6b) Probintzietako gobernu eta administrazio autonomoa diputazioei edo bestelako ordezkari-erakundeei dagokie.
- 6c) Probintzietako gobernu eta administrazio autonomoa batzar nagusiei dagokie.
- 6d) Probintzia baten mugak aldatzea eraginkorra izateko, nahikoa izango da tokian tokiko autonomia-erkidegoko legebiltzarrak onartzea.

7 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUA. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 7a) Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko legegintza- eta administrazio-egitekoak dituen kide anitzeko organoa da.
- 7b) Bere ekintzez politikoki erantzuten du Jaurlaritzak.
- 7c) Bertan behera gelditutako Jaurlaritzak jardunean jarraituko du Jaurlaritza berria jabetu arte.
- 7d) Eusko Jaurlaritza bertan behera geldituko da Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren, Legebiltzarraren babesa galduz gero edota Lehendakariak kargua uzten bada edo hiltzen bada.

8 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 10. ARTIKULUAREN ARABERA:

- 8a) Erregeak hilabeteko epean sendetsiko ditu Gorte Nagusietan onetsitako legeak, eta halakoak berehalaxe argitaratzeko aginduko du.
- 8b) Erregeak hamabost eguneko epean sendetsiko ditu Gorte Nagusietan onetsitako legeak, eta halakoak aldarrikatuko ditu eta berehalaxe argitaratzeko aginduko du.
- 8c) Erregeak hamar eguneko epean sendetsiko ditu Gorte Nagusietan onetsitako legeak, eta halakoak aldarrikatuko ditu eta hogeit hamar eguneko epean argitaratzeko aginduko du.
- 8d) Erregeak hogeita hamar eguneko epean sendetsiko ditu Gorte Nagusietan onetsitako legeak, eta halakoak aldarrikatzea eta argitaratzea borondatezkoa da.

9 TOKI-ORDENANTZAK ONARTZEKO PROZEDURAN, ZEINI DAGOKIO HASIERAKO ONESPENA?

- 9a) Osokoari.
- 9b) Iradokizunetarako eta Erreklamazioetarako Batzorde Bereziari.
- 9c) Korporazioko idazkariari.
- 9d) Alkateari edo Korporazioko buruari.

10 TOKI-ERAKUNDEEN ONDASUNEN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEA:

- 10a) Toki-erakundeen ondasunak herri-jabarikoak edo ondarekoak dira.
- 10b) Herri-ondasunak dira beren aprobetxamendua auzotar guztiei dagokienean.
- 10c) Ondare-ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikora zuzentzen direnak.
- 10d) Toki-erakundeen ondarea berenak diren ondasun, eskubide eta akzio guztien osatzen dute.

11 ERREGELAMENDU-AHALA

- 11a) Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, udalerriei, probintziei eta uharteei, erregelamenduak egin eta beren buruak antolatzeko ahalak dagozkie.
- 11b) Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, udalerriei, probintziei eta uharteei, erregelamenduak egiteko ahala dagozkie, baina ez beren buruak antolatzekoa.
- 11c) Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, udalerriei, probintziei eta uharteei, beren buruak antolatzeko ahalak dagozkie, baina ez erregelamenduak egitekoa.
- 11d) Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, Estatuari eta autonomia-erkidegoei baino ez dagozkie erregelamenduak egin eta beren buruak antolatzeko ahalak.

12 UDAL-ORDENANTZAK ONARTZEKO PROZEDURA

- 12a) Jendaurrean jartzeko eta interesdunei hizpidea emateko gutxienez hamar eguneko epea zabalduko da, erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.
- 12b) Hasierako onespena alkateari dagozkie.
- 12c) Korporazioaren erregelamendu organikoa onartu eta aldatzeko, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da.
- 12d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

13 HERRI-ADMINISTRAZIOAREN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA. HERRI-ADMINISTRAZIOEK ORDAINDU EGIN BEHAR DIZKIETE SUBJektu PRIBATUEI BEREN ONDASUN ETA ESKUBIDEETAN ERAGINDAKO KALTEAK:

- 13a) Ezinbesteko kasuetan izan ezik, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jarduera on edo txarraren ondorioz sortu bada.
- 13b) Ezusteko kasuetan, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen ohiko edo ez-ohiko jardunbidearen ondorioz sortu bada.
- 13c) Ezinbesteko eta ezusteko kasuetan, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen ez-ohiko jardunbidearen ondorioz sortu bada.
- 13d) Ezusteko kasuetan, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen ez-ohiko jardunbidearen ondorioz sortu bada.

14 HERRI-ADMINISTRAZIOAREN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 14a) Alegatutako kalteak benetan gertatutakoa izan behar du.
- 14b) Kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko kontuan izango da zein balioespen-irizpide ezartzen kode zibilean eta ez dira aztertuko inola ere merkatuan nagusi diren balioespenak.
- 14c) Herritarrei kalteak ordainduko zaizkie, bakar-bakarrik, legez kalte horiek jasan beharrik ez badute.
- 14d) Alegatutako kalteak diru aldetik zenbatgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.

15 ADIERAZI ZER DATU EZ DEN NAHITAEZ AGERTU BEHAR UDALERRIKO ERROLDAN:

- 15a) Egoera zibila.
- 15b) Jaiolekua eta jaioteguna.
- 15c) Naziotasuna.
- 15d) Izen eta abizenak.

16.- ESKUALDEA:

- 16 a) Eskualde bat sortzeko ekimena udalerrri interesdunek beraiek har dezakete.
- 16 b) Eskualdeak probintzia bat baino gehiagotako udalerrriak bildu behar baditu, udalerrri horien diputazioen aldeko txostena behar izango da.
- 16 c) Estatuari bakarrik dagokio eskualdeak sortzea.
- 16 d) a) eta b) erantzun zuzenak dira.

17 UDALAREN ESKUMENAK. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 17a) Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.
- 17b) Udalerrriek, beren ezaugarri bereziengatik, aipatutako zerbitzuak ezartzea eta betetzea udalarentzat ezinezkoa edo oso zaila bada, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera dagozkien gutxieneko zerbitzuak betetzetik salbuesteko eskabidea egin ahal izango diote bakoitzak bere autonomia-erkidegoari.
- 17c) Udalerrriak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, toki publikoetako segurtasunaren arloko eskumenak beteko ditu.
- 17d) Udalerrri guztiak bete beharko dute ingurumenaren babeseko zerbitzua, bertako biztanle-kopurua edozein dela ere.

18 HERRITARREK, HERRI-ADMINISTRAZIOEKIN DITUZTEN HARREMANETAN, ZEIN ESKUBIDE DUTE?

- 18a) Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk.
- 18b) Argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko.
- 18c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 18d) a) zuzena da, baina b) erantzuna okerra.

19 ADMINISTRAZIO-EGINTZEN ARRAZOIKETA:

- 19a) Ez dira arrazoituko presako izapidegintza aplikatzeko edo epeak luzatzeko erabakiak.
- 19b) Arrazoituak izango dira aurreko jardunean erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emaleek emandako irizpenarekin bat ez datozen egintzak.
- 19c) Administrazio-egintzen arrazoiketa beti da borondatezkoa.
- 19d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

20 ZENBATEKOA DA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO EPEA?

- 20a) Hamar egun baliodunekoa.
- 20b) Hilabetekoa egintza adierazia denean.
- 20c) Sei hilabetekoa, egintza adierazia ez bada, eta eskaera egin duenarentzat eta gainerako interesdunentzat, epe hori berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik hasita zenbatuko da.
- 20d) Lau hilekoa, aurkatutako ebazpena ebatzi zen egunetik zenbatzen hasita.

21 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN EGITEN DEN FROGA DELA ETA:

- 21a) Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura ebazteko garrantzizko diren egitateak.
- 21b) Instrukzio-egileak atzera bota ahalko ditu, bere irizpidearen arabera, interesdunek proposatutako frogak, eta erabakiak ez du behar arrazoitutako ebazpenik.
- 21c) Administrazioak edozein unetan has dezake, interesdunei jakinarazi gabe, onartutako frogak gauzatzeko behar den jarduna.
- 21d) Interesdunak eskaturik, gastuak dakartzaten frogak egin behar badira, Administrazioaren konturakoak izango dira beti.

22 TOKI-KORPORAZIOETAKO OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUA. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 22a) Gutxienez bi egun baliodun aurretik egin behar da osoko bilkuretarako deia, presako bilkura berezien kasuan izan ezik, osoko bilkurak sendetsi beharko baitu presatasun hori.
- 22b) Osoko bilkura balio osoz eratzeko, kideen legezko kopuruaren erdia gehi bat bertaratu behar da, betiere, gutxienez bost.
- 22c) Behin gairen bati buruz eztabaidatzen hasi eta gero, zinegotzi edo diputaturen bat edo batzuk falta badira, gai horri dagokion bozketan abstentzioa aukeratzearen bestekoa izango da.
- 22d) Bozketak egin eta berdinketa egonez gero, beste bozketak bat egingo da; eta berriz ere berdinketa balego, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

23 TOKI-ERAKUNDEETAKO LANGILEAK. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA.

- 23a) Toki-korporazioek beren antolakuntzan dauden lanpostu guztien zerrenda egin behar dute, funtzio publikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitakoaren arabera.
- 23b) Lanpostuen zerrendak, eredu moduko lanpostuen deskribapena eta lanpostuak sortzeko beharrezko baldintzak prestatuko dituzten arauak ezartzea Osoko Bilkurari dagokio; baita administrazio karrerako oinarrizko arauak ezartzea ere, bereziki goragoko maila eta taldeetara funtzionarioak sustatu ahal izateko.
- 23c) Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.
- 23d) Toki-korporazioek, gainerako herri-administrazioekin koordinaturik, langileen erregistroak eratuko dituzte, Gobernuak onartutako arauen arabera. Erregistro horretako datuen arabera zehaztuko dira soldaten ordainagiriak, ordainsari guztiak egiaztatuta egon daitezzen.

24 TOKI-ERAKUNDEEN ONDASUNAK. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 24a) Toki-erakundeen ondasunak herri-jabarikoak edo ondarekoak dira.
- 24b) Herri-ondasunak dira beren aprobetxamendua auzotar guztiei dagokienean.
- 24c) Ondare-ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikorako direnak.
- 24d) Toki-erakundeen ondarea berenak diren ondasun, eskubide eta akzio guztien artean osatzen dute.

25 ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK.KONFIDENTZIAL-BEHARRA.KONFIDENTZIALITASUNA.

- 25a) Kontratistak isilean gorde beharko du kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeen informazioa, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jo bazen, edo, informazio mota dela-eta, isilean gorde beharrekoa bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, non eta kontratuaren baldintza-agirietan epe luzeagoa ezartzen ez den.
- 25b) Kontratistak isilean gorde beharko du kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeen informazioa, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jo bazen, edo, informazio mota dela-eta, isilean gorde beharrekoa bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta hamar urtez egongo da indarrean, non eta kontratuaren baldintza-agirietan epe luzeagoa ezartzen ez den.
- 25c) Kontratistak isilean gorde beharko du kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeen informazioa, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jo bazen, edo, informazio mota dela-eta, isilean gorde beharrekoa bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta hogeitaz urtez egongo da indarrean, non eta kontratuaren baldintza-agirietan epe luzeagoa ezartzen ez den.
- 25d) Kontratistak isilean gorde beharko du kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeen informazioa, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jo bazen, edo, informazio mota dela-eta, isilean gorde beharrekoa bada. Betebehar hori mugarik gabe egongo da indarrean, non eta kontratuaren baldintza-agirietan epe luzeagoa ezartzen ez den.

26 JAKINARAZPENA

- 26a) Jakinarazpenean erabakiaren testu osoa jaso behar da.
- 26b) Jakinarazpenean jaso behar da zein errekurso jar daitezkeen, zein organori aurkez dakizkiokeen eta zein epetan egin beharko litzatekeen adierazi behar da.
- 26c) a) erantzuna zuzena da, baina b) okerra.
- 26d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

27 TOKI-OGASUNAK

- 27a) Tributuak arautzeko ordenantza fiskalak ondo ulertzeko eta argitzeko xedapenak eta toki-korporazioen kudeaketako ordenantza orokorrak, beti Estatuko Administrazioak emango ditu.
- 27b) Tokiko tributuak arautzen dituzten ordenantza fiskalak udaletxeko iragarki-taulan agerian jartzen diren unean hasiko dira aplikatzen.
- 27c) Toki-ogasunak tributu propioez soil-soilik elikatzen dira.
- 27d) Toki-erakundeek tributuak ezarri eta eskatzeko autonomia izango dute, toki-ogasunak arautzen dituen Estatuko legedian eta legedi horrek berriaz adierazitako kasuetan autonomia-erkidegoek emandako legeetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

28 TOKI-AURREKONTUAK

- 28a) Toki-organismo eta -enpresek beren aurrekontuak izango dituzte.
- 28b) Aurrekontua bat dator urte naturalarekin.
- 28c) Hasiera batean aurrekontua onartuta, ez da jendaurrean jarriko interesdunek aurrekontuaren gaineko erreklamazioak egin ditzaten.
- 28d) Aurrekontua, ezarri behar den urteko abenduaren 31 baino lehen onartu beharko du behin betiko korporazioko osoko bilkurak.

29 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUTEN PRINTZPIO OROKORRAK DIRA

- 29a) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
- 29b) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- 29c) a) erantzuna zuzena da, baina b) okerra.
- 29d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

30 ADIERAZI ERANTZUN OKERRA

- 30a) Autonomia Erkidegoaren menpeko erregistro publikoetan, direla Jaurlaritzarenak, bere erakunde autonomiadunenak, foru-administrazioenak, toki-administrazioenak edota besterenak, dokumentuak lerrokatzea herritarrak eskatzen duen hizkuntza ofizialean egingo da, dokumentuok zein hizkuntzatan idatzita dauden alde batera utzita.
- 30b) Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanean euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartua izatekoa.
- 30c) Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
- 30d) Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta baita epai-jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira.

ORDEZKO GALDERAK

31 EUSKO LEGEBILTZARRA

- 31a) Eusko Legebiltzarra bortxaezina da.
- 31b) Eusko Legebiltzarkideak ukiezinak izango dira beren kargua betetzean emandako boto zein iritziengatik.
- 31c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 31d) a) erantzuna zuzena da, baina b) okerra.

32 GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

- 32a) Legeak arautuko ditu funtzionario publikoen estatutua, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea, sindikatzeko eskubidea egikaritzeko berezitasunak, bateraezintasunen sistema, eta beraien eginkizunak betetzean izan beharreko inpartzialtasun-bermeak.
- 32b) Estatuko Administrazioaren organoak legearen arabera sortu, arautu eta koordinatzen dira.
- 32c) Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men egin.
- 32d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

33 TOKI-AUTONOMIAREN BABESA:

- 33a) Toki-autonomiaren defentsako gatazkak izapidetzen hasteko, toki-korporazioen osoko bilkurak hartu beharko du erabakia, legezko korporazio-kideen kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin
- 33b) Toki-autonomiaren defentsan gatazkak planteatzeko bide eman dezakete Konstituzioak bermaturiko toki-autonomia urratzen duten Estatuaren lege-mailako arauak edo autonomia-erkidegoetako lege-mailako xedapenek.
- 33c) Konstituzio Auzitegiak tokiko autonomiaren defentsan planteatutako buruzko gatazka baten gainean hartutako erabakia loteslea izango da herri-aginte guztientzat, eta guztien aurrean izango ditu ondorio guztiak.
- 33d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

34 PUBLIZITATEA ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOAN. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA.

- 34a) Kontratazio-organoei alde aurreko informazioaren iragarkia argitara dezakete, hurrengo hamabi hilabeteetan esleitzekoak diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuei buruz jakinarazteko.
- 34b) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztiak, haien zenbatekoa edozein delarik ere, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean edo kontratazio-organoen kontratatzaile-profilean argitaratu beharko dira.
- 34c) Iragarkiak ahalik eta azkarren igorri behar dira Europako Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegora edo, bestela, ahalik eta azkarren argitaratu behar dira kontratazio-organoen kontratatzailearen profilean: obra-kontratuak badira, kontratuok egitea aurreikusten duen programa baimentzean, eta gainerako kontratu motetan, aurrekontu-ekitaldia hasi ondoren.
- 34d) Kontratazio-organoiari komenigarri iruditzen zaionean, arau harmonizatupekoak ez diren obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak esleitzeko prozedurak, gainera, *Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean* iragarri ahal izango dira.

35 JAKINARAZPENA EGITEA

- 35a) Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, betiere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.
- 35b) Egindako jakinarazpenaren egiaztagiria espedienteari atxikiko zaio.
- 35c) Egintza ematen den egunetik hamar egun izango dira jakinarazpena egiteko.
- 35d) Erantzun guztiak zuzenak dira.